



ERRENDERIKO "ORERETA" IKASTOLA BERE OGEI URTE BETETZERAKOAN

Aurten udazkena iristean gure Ikastolak, Jainkoak lagun, ogei ta batgarren ikastaro edo «kursoari» asiera emango dio. Jundako urtetan ere onetzaz mintza nintzan, bere sorrera dala edota urteak zear eman bear izan zituan zenbait pauso netzetu eta buru-auste agertuaz. Ogei urte betetze onek lenago esan gabeko geiago ere baditu eta bururatu zait aurten ere len utzitako beste zertxo auek ipintzea.

Gaur gureak ditugun, bai Olazabal kalean 1971 garren urtean zabaldu genduan Ikastolan egin ziran lanak ordaintzeko lenengo egin zan diru biltze eta urrena txikiago izan etzan, ortxe 1974 garrenean Añabitarte baserria erosi eta bertan Ikastolak jasotzeko bigarren aldiz poltxikoari eman bear izan genion estu aldia.

Gauza auek bear bada axaleko kontuak izango dira baño danok dakigu bai guraso, irakasle eta bazkide, zenbat kostata osatu eta lortu genitun eta iruditzen zait besteak-beste diru arazo auek aitzakotzat artu eta gogoan eduki bearrekoak dirala.

Orain, azkeneko bi edo iru urte auetan or dabilta zenbait, Eziketako Legea (Ley de Educación) dala eta Erriko-eskola, Ikastola, Eziketa eta Irakaspidea (Educación y Enseñanza) nola bear duten erakutsi naiean. Pentzatzen det gure Jaurlaritzak bere eskubideak artzean aukeratuko dituala gure Errirako lege auek bear bezela antolatu eta jarriko dituzten Legegizon eta eziketa jakintzan irakasle eta guraso, gai auek sarkondu eta menderatzen dituzten gizonak.

Gogoratzen naiz Ikastolakin asi giñan lenengo urte aietan, besten artean, elburuetako bat Irakaspen Askatasuna (Liber-tad de Enseñanza) lortzea zala eta banekigun beste zenbait arazoen artean egiazko eziketa askatasunik, ez orduan eta ez orain ez dala izango eskola «pribatur» izenekoak Erriko eskolakin batera diru eta gañontzeko laguntza berdiñik, dala Estadu edo Jaurlaritzatik artzen ez dituzten bitartean.

Urtero bezela aurten ere «Oarso» egiterakoan gai bat jarri digute iñor beartu gabe noski, bakoitzak ala nai izanezkero bere guztora erabili dezan.

Aurtengo alerako «MUSIKA» aukeratu dute. Ni Ikastola-ren urte betetze onekin asi naizenezkero esan bearra daukat baduala, ain zuzen, zer ikusia musika gai onekin.

Ikastola sortu eta urte asko jun baño len, lenengo irakasle batzuk eta urrena Aita Ansorenakin abeslari talde polita osatu eta bein baño geiagotan Diputazioak urtero eratzen zituan eskola–aurren arteko jai eta konkurso etara «Orereta» Ikastolaren izenakin agertu eta lenengo saria irabazitako urteak ere izan zituala.

Urte batzuek badira baño gogoan daukat udazken batean abeslari taldea osatzen zuten aur, irakasle eta Aita Ansorenakin agindu genien ibillaldi edo eskursiyua iru autobusetan.

Bilbo aldera nola egin genduan.

Iruditzen zait emen solfeoa eta musika ikasten asitako aur aiek direla gaur «Oñarri» izeneko koru bikaña osatzen duten gazteak, eta nola ez, gure Erri oneri ainbat ospe eta izen ematen dion «Andra Mari» abesbatzaren oñordeko eta osagarri bihurturik.

Ez nuke nere lantxo au bukatu nai beste gertaera baten berri eman gabe. Ortxe aurtengo mayatzaren azken egunetan izandu zan. Añabitartetik orduntxe aurrak jexita arkitu nitan Xenpelar kaletik or gertuan dagon fueroen plasan bi talde alai eta pozik jolasean. Nere ustez bederatzi amar urte ingurokuak, aien izkera entzunda galde eginien bai eskiña batekoei eta urrena berdin bestekoari. Zuek Ikastolakoak ez alzerate? —Ixil une batean— bai erantzun zidaten. Kontura ziran sobrare nere galdera nora zijoan... danok erderaz ari bai ziran.

Zer esan eta zer asmatu eziñik gelditu nintzan... Egoera onen errudun nor diran? Ez nijoa ni emen besteri kulpa eta erruak botzen astea. Neroni aurrena naizela, danok baigera errudun, etxetik asita irten gaitezen kalera... Nun dago ba euskaldun giroa?... Asi taberna, sosiedade, billera–leku, batzokitan... Zenbat euskera entzuten degu ba?

Pentzatzan det euskaldun nortasuna edo euskera ganako kontzientzi oso eskasa daukagula eta ez degula aintzakotzat artzen gure iskuntzak dabilkien ittota gelditzeko arrisku bizia.

Oso ondo dago euskera eta euskeraz irakurtzen eta idazten ere ikastea, baño zer aurreratzen degu itz egiteari usten badiogu?

Gogoan artu eta beti kontuan eduki dezagun gure izkuntza guregana bizirik iritxi bada gure aurreko gurasoak euskeraz itz egin eta erakutsi zigutelako izan dala.

Bukatzeo alegiñak egin bearren arkitzen gera ba aiek emandako eredu edo ejenploa aintzakotzat artu eta gogo guztiz betetzen sayatzea.

